

KARLA- TARREN II GUDEA

(II)



Karla Errege jaunak gudearen asierea egiteko agindua emon ebanetik, laster asi ziran joan-etorriak, ibilketak eta abiamenak.

Baiña zenbat gogozko gudari batu zirala uste do-zue?

Lenengo egunean eunera ez ziran eldu.

Gazteluan egun bat igaro ondoren Arratia'ra abiatu ziran eta guda-mutillen taldea geiagotu egin zan.

On Frantzisko Gudalburuaren esanak egiten ziran, eta, jakiña, onelango arazo ta eginkizunetan buru-auste ta iruzur-aldi ta ustegabeak ugari izaten ziran; lagunen eta ofizialen alde egitea, bizibide ta eskuarte gitxi...

Karla errege jaunak bederatzi milla ogerleko ordain-txartelatan eskiñi eutsozala esan eban Uribarri'k, baiña berak ez ebazala artu gura.

Guztiak jokabide zentzunduna artu eben eta mutill talde kementsu oneri nekaldi bildurgarriak eta daretariko atsekabeak etorri jakozan.

Alan eta guztiz be bildurra azpiratu eta Aurrera Mutillak! esaten eben, Ribicon ibaia igaro ebanean Zesar'ek esan eban antzera: «Alea jacta est», egitekoa eginda dago.

Ba-etozan mutillak geroago ta geiago: Arratia'tik Durango'ra joan ziran, Zengotita, Arginzoniz, Sierra, Urkizu ta Orue Gudalburuaren lagun zirala.

Markiña-aldean Ibazeta'tar Estanislao ta Sarasola'tar Jose Jaunak euken zeregin au. Gernika'n Allende Salazar'tar Pedro jaunak.

Enkarterriaren barruan Cuevillas'tar Florentzio Koronel J.^a, Cobreros'tar Gustavo J.^a, Salazar eta Salazar'tar Pedro J.^a, Laguno'tar Anizeto J.^a izan ziran laguntzaille.

Gudaketarako gauzak atondu eta eurak izan ziran lenengo gudea asi ebanak Gueñes'en 25 guardiazibil erriko etxeetan gordetara beartu ebezan eta gero

izkilluak emon eta Bilbo'ra joateko aukerapena emon eutseen.

Orrillaren lenengo egunean ondo gertuta egoan gure gudaroste batua ta agurgarria.

Zazpi guda-batz ziran guztiz: Arratia'koa, Mungia'koa, Bilbo'koa, Durango'koa, Gernika'koa, Markiña'koa, Enkarterrikoa. Euren artean zaldidun-talde bat be ba-egoan, Noriega'tar Felix J.^ak agindua.

Gudalburu Nagusia, Uribarri'tar Frantzisko jaun zan eta Borda'tar Luis J.^a Kapellau; gudateko idazkari Ruiz de Arburo'tar Isidor; Osagillea Basozabal'dar Juan J.^a, Batalloi guztiak eukezan kapellauak eta arduraduna, batzuk txaranga ta soiñuak be bai, beste batzuk osagille-ordeak eta ebaketariak.

Bizkaia'n egin zan Guda-dei au baiño eder ta obeagorik ezin izan leitekean: Zortzi egun izan ziran naikoa Karla Errege jaunaren ikurrinpean 4.000 naimenezko gudari baiño geiago batzeko.

Baiona' bertako aundiki batek euren izenean emon eban berbea gordeteko gertu egozan.

Jorraillaren 30'ean batu ziran Gernika'n eta orrillaren 1.^oan guztiak alkartuta Aritzaren azpian, Iparragirre'k abestu eban «arbola Santua»ren ondoan, Aldundia barriztu eben, Guda-Aldundia, Arginzoniz'tar Antonio J.^a buru zala.

Arginzoniz'ek euskeraz egin eutsen berbaldi goangarri bat baiña ez jakon atsegin izan Artiñano izeneko aundiki bateri, onek buruzagien eta Guda-Aldundiaren izendapena ez ebazan onartu. «Txarto asten dana txarto amaituko da» esan eban.

Arginzoniz Aldundi-Buruaren semeak erantzun eutson Artiñano'ri: Liberalak kendu eben aldundia bear zan, guda-ako agintariak bear diran lez, gorpuzak burua bear dauan lez. Erriaren onurea artu zan lenengo legetzat: Salus populi suprema lex.

LETONA'k